

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	UR-INGURUNE NATURALETAN ISTRIPUA IZAN DUTENAK ERRESKATATZEAN IGERI EGITEKO TEKNIKAK ETA KONDIZIO FISIKOA	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF1499		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Prebentzioa eta sendatzea		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ur-ingurune naturaletako sorospena	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Ur-ingurune naturaletan istripua izan dutenak erreskatatzea	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ur-ingurune naturaletan istripua izan dutenak ateratzea eta lekualdatzea.	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator LB1 eta LB6 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Igeri egiteko abileziak, trebetasunak eta teknikak hainbat ur-ingurune naturaletako kondizioetara egokitzea.

EI1.1 Uretara sartzeko teknikak gauzatzea, eta ingurunearen kondizioetara egokitzea, irisgarritasun, hurbiltasun eta uraren ezaugarrien arabera.

EI1.2 Uretan oreka dinamikoko egoera bat lortzea, inguruneari eraginkortasunez behatzeko eta han orientatzeko.

EI1.3 Murgilketa-teknikak gauzatzea, eta ingurunearen kondizioetara egokitzea.

EI1.4 Uretan oreka dinamikoa berreskuratzea, askotariko bira-motak egin ondoren.

EI1.5 Hainbat ur-ingurune naturaletako kondizioetara egokitutako igeriketa-teknikak gauzatzea.

A2: Kondizio fisikoaren mailari eusteko eta teknikak entrenatzeko oinarrizko programa bat garatzea???. Ur-ingurune naturaletako larrialdietan jarduteko protokoloak eta planak

EI2.1 Sorosleak ur-ingurune naturalean eraginkortasunez esku hartzeko gaitasun fisikoak eta teknikoak identifikatzea, eta haiek eskuratzeko eta mantentzeko lan-metodoak hautematea.

EI2.2 Ur-ingurune natural bateko kondizio espezifikoetara egokitutako kondizio fisikoaren maila bati eusteko oinarrizko entrenamendu-programa bat zehaztea.

EI2.3 Erreskate- eta sorospen-teknika espezifikoaren eguneraketa identifikatzea, eta joera berriak eta protokoloak txertatzen laguntzea.

EI2.4 Entrenatzeko eta banakako eta taldeko jarduera-protokoloak eta larrialdietan jarduteko plana ebaluatzeko probak eta simulazioak zehaztea eta egitea, gutxienez hauek kontuan hartuz:

- Helburuak.
- Ingurumen-kondizioak.
- Hainbat biktima eta istripuren aurrean esku hartzeko aukerak.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Aldizkakotasuna.
- Ebaluazioa.

Edukiak

1. Urpeko oinarrizko igeriketa.

- Fisika-ezagutza urpean igeri egiteari aplikatuta.
 - Presio hidrostatikoa.
 - Boyle-Mariotte Legea.
 - Arkimedesen printzipioa.
- Urpean igeri egitea urpeko oinarrizko ekipo batekin: hegatsak, betaurrekoak eta hodia.
 - Urpean igeri egiteko printzipioak.
 - Istripua izan dutenen bila urpean igeri egitea.
- Ikusmenaren aldaketak.
 - Aldaketa akustikoak: argiaren islapena, errefrakzioa, absortzioa eta difusioa.
 - Tenperatura-aldaketak.

2. Uretara sartzeko eta istripua izan duenarengana hurbiltzeko tekniken aplikazioa:

- Materialik gabe.
- Materialarekin.
- Urertzetik.
- Ontzietatik.
- Salbamenduko arropa.
- Ingurune naturaleko salbamendura egokitutako igeriketa-estiloak.
 - Krol estiloa eta ingurune naturaleko salbamendurako haren egokitzapenak.
 - Ingurune naturaleko salbamendurako bular-estiloa eta bular-estiloko ostiko alderantzikatua.
 - Bizkar-estiloa eta haren egokitzapena ingurune naturaleko salbamenduan istripua izan dutenak lekualdatzeko.
 - Tximeleta-estiloko ostikoa eta ingurune naturaleko salbamenduan dituen aplikazioak.

3. Soroslearen prestakuntza fisikoa.

- Ur-inguruneko entrenamendua.
- Entrenamenduaren printzipio orokorrak.
- Gaitasun fisiko baldintzatzaileak eta koordinaziozkoak.
- Salbamenduko eta sorospeneko gaitasun fisikoen entrenamenduko baliabideak, metodoak eta kontrola.
- Uretako salbamenduko lekuz aldatzeko sistemen entrenamendu espezifikoa.
- Metodoak, baliabideak eta kontrola/ebaluazioa.
- Soroslearen egoera fisiko orokorraren eta espezifikoen programazioaren oinarriko printzipioak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ur-ingurune naturaletako sorospena.